2026ko bertsioa

Ehiza-zigilu digitalaren eskuliburua, ehiza-barrutien kudeatzaileentzat



Edukien taula

1 Sarrera: ehiza-zigilu digitala eta haren helburuak..... 4

2 Zer da ehiza-zigilu digitalaren web-tresna?.....5

3 Erabiltzaile administratzaileen erantzukizunak.....6

4 Nor sar daiteke kontrol-panelera?.....6

5 Nola hartzen dut alta?.....7

6 Kontrol-panela nola erabili, urratsez urrats.....9

6.1. Panela.....9

6.2. Erabiltzaileak.....9

6.3. Ehiza-barrutiak.....15

6.4. Zigiluen zerrenda.....18

7 Kontrol-panela nola maneiatu ehiza-zigilu digitalaren aplikazio mugikorretik.....19

8 Kontaktu interesgarriak.....21

1 Sarrera: ehiza-zigilu digitala eta haren helburuak

Ehiza-zigilu digitala sistema bat da, ehizakiak elektronikoki erregistratzeko aukera ematen duena, haien datuak modu eraginkorragoan biltzeko eta espezie batzuk (usapal arrunta, adibidez) ehizatzeko eskakizunak betetzeko.

Orain arte, zigilu fisikoa plastikozko marka bat izan da, ehizaki batzuetan (ehiza larriko guztietan eta ehiza txikiko batzuetan) jartzen dena. Zigilu digitala “QR” kode bat da, eta bertan gordetzen da ehizaki bati buruzko informazio guztia. Behin sortuta, ezin da suntsitu.

Informazioa aplikazio mugikorrean sortzen da, zerbitzari batean gordetzen da eta kontrol-panel baten bidez kudeatzen da. Ehiza-barrutien kudeatzaileek eta Administrazioak soilik dute sarbidea.



- Ehiza-barrutien kudeatzaileek ehiza-kupoak esleitu diezazkiekete ehiztariei, erabiltzaileen altak kudeatzen dituzte eta ehizaldiaren arduradunak gaitzen dituzte, besteak beste.

- Administrazio eskudunek, berriz, ehiza-barrutiak baimentzen dituzte, barrutiak ordezkatzen dituzten kudeatzaileen bidez.

Administrazioak ehiza-barrutiek sortutako informazio guztia eskura dezake. Hala ere, ehiztarien datu pertsonalei eta geolokalizazioari buruzko informazioa anonimizatuko da, erabiltzaileen pribatutasuna errespetatzeko. Kontrol-panela diseinatu da Administrazioak eta ehiza-barrutien kudeatzaileek informazioa efizientziaz kudeatu ahal izan dezaten.

Jarraian, sakonki garatuko dugu kontrol-panelak nola funtzionatzen duen.

2 Zer da kontrol-panela?



Kontrol-panela ehiza-barrutien kudeatzaileek bakarrik erabil dezaketen tresna bat da, ehiza-barruti bateko ehizakiekin loturiko eragiketak egiteko; hala nola:

- Telefono mugikorrik ez duten ehiztariei alta ematea.
- Ehiztarien sarbide-eskaerak onartzea edo baztertzea.
- Ehiztarientzako ehiza-kupoak ezartzea, ehiza-egunen arabera.
- Hirugarren baten zigilatze bat gaitzea (pertsona horrek telefono mugikorreko aplikaziorako sarbiderik ez badu).
- Egun bakoitzean egindako zigiluak berrikustea eta barrutiko ehizakien bilakaera kontrolatzea.
- Administrazio eskudunari sortutako informazioa ematea.

3 Erabiltzaile administratzaileen erantzukizunak



- **Informazioaren konfidentzialtasuna**

  Erabiltzaile administratzaileek (ehiza-barrutien kudeatzaileak) informazio pertsonalaren konfidentzialtasuna mantentzeko erantzukizuna dute. Erabat debekatuta dago informazio hori zabaltzea, hirugarrenekin partekatzea eta hirugarrenei saltzea edo alokatzea, jarraian aipatzen diren salbuespenetan izan ezik.

- **Legea betetzea**

  Erabiltzaile administratzaileek informazio pertsonala zabaldu behar dute, legez hala eskatzen bazaie edo gobernu- edo administrazio-agintaritza baten baliozko eskaera bati erantzun behar badiote. Horren barruan sartzen da –baina ez soilik– zitazioak, agindu judizialak edo antzeko lege-prozedurak betetzea.

4 Nor sar daiteke kontrol-panelera?

Ehiza-barrutien kudeatzaileak bakarrik.

Ehiza-barrutiaren kudeatzailearen ardura da erabiltzaileak kudeatzea; beraz, ehiztariak ezin du aplikazio mugikorra erabili, baimenduta egon arte.

5 Nola hartzen dut alta?

Kontrol-panelera sartzeko, EZ da alta hartu behar; sistemaren kudeatzaileen gonbidapen baten bidez eginen da. Kontrol-panelera sartzeko web-orria honako hau da:

https://gestor.precintodigital.com/login



Precinto Digital de Caza

Bienvenido a Precinto Digital de Caza

Ha sido registrado como usuario del Precinto Digital con el rol Titular de coto.

Tiene acceso al coto undefined


Tu usuario es: *********@gmail.com
Tu contraseña es: ******
Puedes cambiarla desde el perfil de usuario en cualquier momento o pulsando aqui cambiar contraseña
Como primer paso, complete sus datos de perfil pulsando la esquina superior derecha perfil -> editar perfil.

Importante: Recuerda que estos datos son para acceder al Panel de Control como **Gestor CCAA**.


Para precintar como cazador usando la aplicación móvil es recomendable registrarse con un email diferente y crear un perfil de cazador
Acceda al panel de control en el siguiente link https:\gestor.precintodigital.com

Si tiene algún problema para conectarse contacte con soporte: soporte@precintodigital.com.

Sistemaren barruan, goiko eskuineko izkinan, datu hauek alda daitezke:



- Izena
- Abizenak
- NANa
- Pasahitza: interesdunak bere kabuz sor dezake pasahitza, edo ausazko pasahitz bat sortu.
- Jatorrizko probintzia: jatorrizko barrutiak dauden probintzia izan behar du.
- Harremanetarako telefonoa



6 Kontrol-panela nola erabili, urratsez urrats



Kontrol-panelaren ezkerreko ertzean, panelaren funtzioak agertzen dira (mahaigaina, erabiltzaileak, ehiza-barrutiak eta zigiluak).

6.1. Mahaigaina

Besterik adierazi ezean, kontrol-panelaren webgunean sartzean, “Mahaigaina” atalean jasotako informazioa agertuko zaigu. Bertan, barrutiaren datuen laburpena agertuko da: ehiztari-kopurua, atzemandako ehizakiak, lortutako zigiluak, etab.

6.2. Erabiltzaileak


Atal honetan, ehiztarien kudeaketarekin lotutako hainbat azpiatal biltzen dira:

Sarbide-eskaerak

Ehiztariek aplikazio mugikorretik ehiza-barrutira sartzeko egiten dituzten eskaerak kudeatzeko atal nagusia.

Eskaeren zerrendaren ezkerreko laukiak markatuz, eskaera bat baino gehiago onartu edo baztertu daitezke aldi berean.






Erabiltzaileen zerrenda


Gaur egun aplikazioan erregistratuta dauden eta barrutian onartu diren erabiltzaileak agertzen dira. Atal honek aukera eskaintzen du erabiltzaileen informazioa (izena, NANa, abizenak, rola, etab.) azkar ikusteko. Datuak iragazteko aukera ere badago.


Zerrendak aukera ematen du datuak iragazteko, erraz ikusteko (NANa, izena, helbide elektronikoa...).



Gordetako informazio guztia CSV eta PDF formatuan esporta daiteke plataformatik kanpo kontsultatzeko; horretarako, “Dena esportatu” aukera dago erregistro guztiak esportatu nahi baditugu, edo “Hautatutakoak esportatu” erregistro jakin batzuk bakarrik nahi baditugu.

Erabiltzaile bakoitzerako, "Ekintzak" atala daukagu, zerrendaren eskuinaldean, aukera hauekin:





Editatu: ehiza-barrutiaren kudeatzaileak ehiztarien informazioa alda dezake (izena, abizenak, telefonoa, jatorrizko probintzia), baina ez helbide elektronikoa, aplikazioaren erregistrorako erabilitako bera izan behar baitu.

Hortik, erabiltzailearen datuak eta rola ikus ditzake, eta ehiztariei ehiza-barrutiak eslei eta ezaba diezaizkieke, eta pasahitzak aldatu.


Zigiluak: ehiztari bakoitzak atzemandako ehizakien datuak (besteak beste, ehizaki-kopurua, espeziea eta ehizatze-eguna). Halaber, informazio guztia CSV eta PDF formatuetan esportatzeko aukera ematen du.






Pasahitza berrezarri: pasahitza berriz ezartzeko aukera. Erabiltzaileak mezu elektroniko bat jasoko du berak aukeratutako pasahitz berria gordetzeko. Horretarako, barrutiaren kudeatzaileak onartu egin behar du eskaera egiaztatzeko mezua.

Ezabatu: guk hautatutako erabiltzaileen barrutietarako sarbidea desgaitzeko aukera ematen du. Baina ezin dira ezabatu erabiltzaileen datuak eta haiek erregistratutako zigiluak.



Erabiltzaile berria


Atal honetan, kudeatzaileak alta ematen die, ESKLUSIBOKI, ehiza-zigilu digitalaren aplikaziora sarbiderik ez duten ehiztariei (telefono mugikorrik ez duten ehiztariak). Funtzio honetan, formularioa osatu behar da erabiltzailearen datuekin.



Erregistratzeko, helbide elektronikorik gabeko pertsonen aukera erabiliko da. Azkenik, kudeatzaileak altan emandako pertsonaren rola (ehiztaria) sartu behar du, eta erabiltzailea dagokion barrutiarekin lotu.

Sarbide-eskaerak

Kudeatzailearen barrutietan sartzeko eskaerak kudeatzeko atala. Eskaeraren egoeraren arabera, kolore batekin nabarmenduko da:



Eskaera (urdinez): ehiztariak ehiza-barrutirako sarbidea eskatu du, baina kudeatzaileak oraindik ez du erantzun. Kasu horretan, “Ekintzak” atalean “Onartu” edo “Baztertu” agertuko da. Hainbat eskaera batera kudeatzeko aukera ematen du, sarrera guztiak edo batzuk hautatuta eta goiko ezkerreko izkinan dauden “Onartu” edo “Baztertu” botoiak sakatuta.

Onartuta (berdez): kudeatzaileak eskaera onartu du, eta ehiztariak ehiza-zigilu digitala erabil dezake.

Ezeztatuta (horiz): erabiltzaileak eskaera baliogabetu du aplikaziotik.

Baztertuta (gorriz): kudeatzaileak atzera bota du eskaera.




6.3. Ehiza-barrutiak


Atal honetan, halaber, bi azpiatal ditugu:

Ehiza-barrutien zerrenda

Atal honetan, kudeatzailearekin lotura duten ehiza-barruti guztiak agertzen dira, haiei buruzko informazio garrantzitsuarekin (matrikula, autonomia-erkidegoa, probintzia eta ekintzak).




Informazio hori CSV eta PDF formatuan esporta daiteke, nahi diren barrutiak hautatuz eta “Dena esportatu” edo “Hautatutakoak esportatu” aukerak hautatuz.



Horrez gain, “Ekintzak” atalean hainbat azpiatal daude, honako helburu hauekin:


Ehiztariak: ehiza-barrutiarekin lotutako ehiztarien informazioa.

Zigiluak: barrutian egindako zigiluen berri ematen du. Espeziea, eguna, koordenatuak eta pieza-kopurua ere jasotzen ditu.



Kupoak: barrutiari esleitutako kupoen egoera. Honako datu hauek ikus daitezke: esleitutako espeziea, hasierako animaliak, falta diren animaliak, kupoa betetzeko falta den ehuneko erabilgarria, eta kupoaren hasiera- eta amaiera-eguna.
Espezie batzuetan (usapala, adibidez), Administrazioak kupo bat ezarriko du ehiza-barruti bakoitzeko. Administrazioak automatikoki jakinaraziko dio kupoa kudeatzaileari, eta ezin izanen da aldatu.


Ehiza-barrutiaren kudeatzaileak kupo bat ezartzen ahal du ehiztari bakoitzeko, kontuan harturik barrutiari baimendutako gehieneko pieza-kopurua. Hala, aukera izanen du ehiztari bakoitzari, modu independentean, kopuru hori handitzeko edo murrizteko. Bestela, barrutirako kupoa bere horretan utz dezake, ehiztari guztietarako poltsa komun bat gisa; kasu horretan, mekanismo bat ezarri beharko du atzemandako ehizakiek esleitutako kupoa ez gainditzeko.




Editatu: Aurreko funtzionalitate guztiak biltzen ditu, eta aukera ematen du ehiza-barrutiaren datuak aldatzeko (matrikula izan ezik, haren identifikazio-sinboloa baita), ehiztariak edo ehizaldiaren arduradunak gehitzeko edo kentzeko, ehiza-barruti bakoitzeko baimendutako kupoa berrikusteko eta ehiztari bakoitzeko kupoa esleitzeko (erabiltzaile bakoitzari modu orokorrean edo independentean handitzeko edo murrizteko aukerarekin).

Ezabatu: hautatutako barrutirako sarbidea ezabatzeko.

6.4. Zigiluen zerrenda



Ehiza-barrutian egindako zigilu guztiak biltzen ditu zerrenda horrek. Datuak iragazteko eta CSV eta PDF formatuan esportatzeko funtzioa barne hartzen du.




"Ekintzak" atalean, zigiluaren hash kodea (zigilu bakoitzari lotutako kode alfanumerikoa) kontsulta daiteke.



OHARRA: zigiluaren edozein datu aldatuko balitz, hash kodea ere aldatuko litzateke.

Gainera, "Ikusi mapan" ataletik, kudeatzaileak sortutako zigiluen informazioa berrikus dezake mapan.





"Zerrendatu zigiluak" menutik ere ikus daitezke zigiluak.

7 Kontrol-panela maneiatzea ehiza-zigilu digitalaren aplikazio mugikorretik

Berritasun gisa, ehiza-barrutien kudeatzaile guztiak sar daitezke **KUDEATZAILEA** atalera, ehiza-zigilu digitalaren aplikazio mugikorrean (ehiztariek zigilatzeko erabiltzen duten aplikazio bera).

Horrela, azaldutako tramite guztiak telefono mugikorretik egin daitezke, kontrol-panela ordenagailu edo tableta batetik kontsultatu beharrik gabe.

Bi tresnek balio bera dute eta modu osagarrian erabil daitezke.





ERABILTZAILEAK. Barrutian ehizakia zigila ditzaketei ehiztarien datuak kontsultatzeko.

KUPOAK. Ehiza-barrutian sortutako kupoak denbora errealean berrikusteko, eta ehiztari bakoitzeko kupoak esleitzeko.

ZIGILUAK. Barrutian sortutako zigiluak denbora errealean berrikusteko, eta mapan duten kokapena ikusteko.

EHIZALDIAREN ARDURADUNA. Ehizaldiaren arduradunak esleitzeko, telefono mugikor adimendunik ez duten ehiztarien kasuan.

SARBIDE-ESKAERAK. Kudeatutako ehiza-barrutietan sartzeko eskaerak onartu edo baztertzeko.

8 Kontaktu interesgarriak

Erabiltzaileentzako arreta

Proiektua etengabe aldatzen ari denez une oro zerbitzurik onena bermatzeko, ehiza-barrutien kudeatzaileek aplikazioaren funtzionamenduari buruzko kontsulta teknikoak egiten ahalko dituzte.

caza@navarra.es

+34 848 426733

Adibidez:

- Ezin naiz aplikazioan erregistratu
- Ez dut nire ehiza-barrutia aurkitzen
- Akatsak zigilatzean, geolokalizazioan eta ehizakien transferentzian.

Aplikazioaren zalantza informatikoak eta arazo teknikoak argitzeko, honako hauekin ere jar daitezke harremanetan:

soporte@precintodigital.com

+34 641 66 49 45


pdc
Precinto Digital de Caza